

itsasondo 2.0



**Olentzero Itsasondotik
pasa zen eta opari bat
utzi zigun**

Agur bero bat itsasondotar guztiei:

Komunikazioaren garaian bizi garela esan ohi da, etxetik atera orduko dugu nonbait komunikazio aztarnaren bat, gutun bat jaso degula eta berri bat irakurtzen dugun einean zerbait berri barneratzen dugu. Nonbait pentsaezina da gure korreo elektronikoa ireki eta hutsa aurkitzea, gure buzoia zabaldu eta iñongo publizidaderik aurkitzea, kalean bizilagunarekin topo egin eta iñongo hitzik ez esatea. Pentsaezina da gizarte honetan hain barneratua dauden komunikabideak baztertzea.

Eta, inkomunikazioa da hain zuzen ere modan dagoen beste hitz bat, komunikazioaren aurka eta batera elkarbizi den etsaia, nolabait puntu batera iritsi da gure gizartea non aurkako terminoak teiltatu berdinarenean bizi diren.

Zerbait ematen digute eta gero emandakoa kendu, hitz egiten erakusten digute eta gero ahoa estaltzen digute hitz egin ahal ez izateko, erokeri galantak ikus ditzazkegu komunikazio mende honetan...

Proiektu berri hau aurkeztu nahi dizuegu, gure herrian komunikazioa garatzeko bide berri bat, ITSASONDO 2.0, aldizkari berria, gure aldizkaria, denon aldizkaria.

Aspaldian nabaritu genuen hutsune bat zegoela aipatzen degun arlo honetan eta buru belarri elkarlanean jarri gara egoera larri honi aurre egiteko, inkomunikazioak irabazi ez gaitzan eta batez ere herritarren arteko erlazioak berotzeko.

Denon proiektu bat dela ulertzea ezinbestekoa izango da aldizkari hau luzaroan bizi dadin eta urteetan zehar iraun dezan, ume bat bezala zaindu beharko dugu eta denon partehartzea eskatzen dizuegu.

Itsasondo 2.0 izena jarri diogu itsasondoren egiten den bigarren komunikazio saiakuntza honi, alde batetik esan bezala bigarren saiakera delako eta bestetik teknologia berriei erreferentzia egiñez modernitate ikutu bat ematearren, eta espero dugu zuen gustukoa izatea.

Dibertsitatea izango da aldizkari honen ildo, beti ere ale bakoitzean eskema berdina segiko dugun arren, honela saiaturako gara gure agenda lokala 21 zer den azaltzen eta orain arte udalak hartu dituen erabakiak esplikatzen. Bestalde ezinezkoa izan zaigu alde batera uztea abiadura haundiko trenaren inguruko azken albisteak zuenganatzea eta hiru hilabeteko tokian tokiko informazioa eskeiniko dizuegu.

Ale bakoitzean, freskotasun toke bat lortzearen, erreportaiak, elkarriketak eta aktualitate albisteak zabalduko ditugu eta askotan zuek izango zarete albiste protagonista. Argi dago ez degula alde batera utziko iñongo albisterik. Den dena plater gainean emango dizuegu.

Halaber azkeneko atalean, porru salda deritzon atalean zuek jarri nahi dituzuen gauza guztiak jarri ahal izango dituzue iñongo zentsurarik gabe, zuen errezetak, zuen bidaieko argazkiren bat, zuen umearen argazki bat, esaldi bat... hemen ikusiko dugu noraino doan zuen imajinazioa.

ITSASONDO2.0@ITSASONDO.NET hau da gure email-a hona bidali zuen idazkiak. Bestalde udaletxeko beraldean laster jarriko dugu posta kutxa berezi bat zuen iradokizunak jasotzeko.

Besterik gabe laster arte, zuen berrien zai gaude, ez beldurtu eta idatzi.





Nolako Itsasondo nahi dugu etorkizun hurbilean?

Galdera honi erantzun nahian hasi giñen lanean Itsasondon Agenda 21 prozesuan. Helburua, herrian aurrera eraman nahi diren ekintzak plan batean jaso eta pixkanaka ekintza horiek garatzen joatea da. Plan honek hala ere badu bere berezitasuna:

- Herritarren artean adostutako ekintzak jasotzen dituen plan bat izatea
- Gaurko herritarrentzat eta ondorengoen-tzat, herri txukun eta bizi bat lortzea helburu duen plan bat izatea

Prozesuan martxan 2003 amaieran hasi giñen Goierriko gainerako herriei batera eta honako hurrats hauek jarraitu ditugu orain arte:

1. Herriaren Diagnostikoa: herriaren ingurumen, gizarte eta ekonomia egoera ezagutzeko diagnostiko bat burutu genuen 2004an. Dokumentu honen bidez, hobetu beharreko hainbat gai agerian gelditu ziren.
2. Herritarren Partehartze Foroak: 2004tik hasita Herritarren Partehartze Foroaren bilera ezberdinak egin dira, herritarren artean adostutako ekintzak lantzeko. Herriaren Diagnostikotik abiatuta, hobetu beharreko puntuak eta hauek hobetzeko egin beharreko ekintzak adostu ziren.
3. Ekintza-Plana: 2005eko abenduan onartu zuen Itsasondoko Udalak datozen urteetan aurrera eraman beharreko ekintza konkretuz osatutako plana.
4. Ekintza-Planaren garapena: 2006tik aurrera, ekintza-plan hortako ekintza ezeberdinak aurrera eramaten ari gara.

Egun, bi urte pasa dira ekintza-planeko ekintzak aurrera eramaten ari garenetik, eta egokia iruditu zaigu egiten ari garen lana neurtu eta ebaluatzea. Honela, urte bukaerarako Gipuzkoako Foru Aldundiak Agenda 21aren barruan egindako lana ebaluatuko digu eta gure ekintza-planeko ekintzen garapena nola dagoen zehaztuko da (hasita dau-den ala ez, zein gai landu diren gehien, etab. adieraziz).

Era berean, Agenda 21arekin udala funtzionatzeko modu berri bat landu nahi dugu, herritarren partehartzean oinarritzen dena. Zentzu honetan ekimen ezberdinak eraman dira aurrera, herritar guztiok udalaren gestioan zer esana daukagula uste dugulako (AHTaren inguruko eztabaida prozesua, Kultur-taldea, Arau Subsidiarioen berritzea, etab.). Herritarren partehartze hau sustatzeko ezinbestekoa da herritarrek udala aurrera eramaten ari den ekime-

nez informatuak izatea. Martxan jartzera doan aldizkari honetan daukagun tartetxoaren bidez, datozen aleetan, gaika, orain arte buruturiko ekintzen berri ematen joango gara, datu bidez, guztion artean burutzen dihardugun lana zein den jakinarazteko.

Azkenik, edozein zalantza, proposamen edo informazio nahi izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jarri eta zuen ekarpenak helaraztea. Honetarako 943164172 telefonoa edo zuberora@laiacoop.net helbide elektronikoa erabil ditzakezue.

<http://www.agenda21-local.net/portal/a21local.jsp>

http://es.wikipedia.org/wiki/Agenda_21

http://www4.gipuzkoa.net/sostenibilidad/es/05agenda.asp?apartado=05_2

La Agenda 21 Local es el compromiso de los pueblos y ciudades con el desarrollo sostenible, un programa universal para hacer compatible el progreso con el respeto al medio ambiente.

La Agenda 21 Local forma ya parte del lenguaje cotidiano y de la política local.

"SAIA GAITEZEN DENEN ARTEAN GURE NATURA BABESTEN"



Jakin dezazun

Betetako sailik handienak dituen, 124.500 hektarea direlarik landare handiez estalitakoak, lurralde osoaren %63 delarik. Insignis pinua jarraitzen du nagusia izaten Gipuzkoako landareetan, 50.000 hektarea estaltzen dituelarik, azken hamar urteetan gutxiagotu bada ere, ondoren Atlantikoko baso mistoa eta pagadiak direlarik ugariak.

Biztanle bakoitzeko batez besteko 250 zuhaitz baino gehiago daude Euskadin eta Europa mailan lehenengo da, Finlandia eta Suediarekin batera, azalerako zuhaitzen kantitateari dagokionez. Zuhaitzek Euskal Herriko 390.000 hektarea inguru estaltzen dute, hau da, lurraldearen %54.

AHT itsasondotik zehar: Danel Etxeberriarekin kalakan:

Atal honetan saituko gara hiru hilabetero aht inguruko berriak zuenganatzea, gure herrian gertatzen ari diren azkeneko mugimenduak azaltzen.

Jakin badakigu jada zein den projektu suntsitzailearen izaera, imposaturiko projektu honen helburu bakarra zein den, hain zuzen ere oso interesgarria eta erakargarria den projektu ekonomikoa.

Bistan da, azpiegitura hauek guztiak abian jartzeko arrazoiak ez da "interes orokorra", inbertsio publikoekin etekin pribatuak eskuratzen dituzten zenbait talde ekonomiko indartsuren interes partikularra baizik. Izan ere, horrela baliabide publiko kopuru izugarriak transferitzen dira -- zergen bidez eta horiek "aurrerapenaren" izenean erabiliz-- langile jendearengandik eraikuntza eta porlan enpre-setara, eta bide batez, zenbait alderdi politikoetara. Gizarteak ezin onar dezake hainbeste diru publiko xahutzea, eta are gutxiago AHTren egitasmoak errentagarritasun ekonomiko eta sozial negatiboa duenean, ustiapen komertziala negatiboa izango denean eta errentaren birbanaketan kaltegarria izango denean, langileek ordaindu eta eliteak erabiliko baitu.

AHTn hainbeste diru xahutzen bada, zertan ez da inbertituko? Nola eragiten du azpiegitura erraldoi eta oso garestiak eraikitzen egiten den diru xahuketa honek gizarte arloko gastuen murrizketan, hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan eta euskaraz dauden premia sozialak erantzunik gabe gelditzean?

Aht ren ibilbidea itsasondon:

Gure herrian barneratuko da 2.014 metrotan mendian zehar, non 1950 metro tunelak okupatuko duen eta 64 metroko zubina erreka eraiki da.

Aipagarria da noraino dijoan jaso dugun faltsukeria, izkutatua izan zaigun informazioa aipatu dugun itsasondoko zatian ahaztu egin zaiela aurkeztea "txaleta"-n frentean diseinaturiko larrialdiko irteera.

Zer esanik eman dute bestalde projektuaren lehen kalte-tuak, jabeak, lursailen jabeak hain zuzen ere, zeintzu azken momenturaino ere ez dute ibilbide zehatzaren berri jakin eta espekulazio hutsaren menpe bizi izan diren orain arte.

Gure herrian zortzi kaltetu izango dira abiadura haundiko tren beraien lur sailerak igaroko delako, eta duela gutxi komunikatu izan zaie erabaki hori Eusko Jaurlaritzak sortutako eta desjabetuen kasua eramateko eraikitako Lurranek bulegotik. Pixka bat berandu ala?



ZEIN PUNTUTAN GAUDE:

Projektua lehiaketa publikoan atera da eta orain arte dakigunaren arabera Eusko Jaurlaritza azterketa fasean dago jasotako enpresen proposamenei aterabide bat emateko eta adjudikatzeko. Lehiaketa iraila bukaera bukatu zen.

HERRIAN GERTATUTAKO AZKENEKO ERASOAK:

Sondeo ilegalak Itsasondon!!!

Gauetz eta azpikeriaz lau egun daramatzate Itsasondoko Iraola baserrien inguruan zeharo ILEGALA den sondeo lanak prestatzen.

Bertako bizilagunen jabegoetan baimena eskatu gabe sartuaz, makineria astuna herri bide estuetatik sartuaz, langak puskatuaz, kotxeak eta kamioiak baserri inguruetan inongo baimenik eskatu gabe eta edozein modutan aparkatuaz aste hasieratik darabilte AHTarentzako sondeoak egiteko prestaketa lanetan Euroconsult enpresa eta ETSko arduradunak. Lotura honetan Euroconsult enpresak 2005. urtean agindako lan zerrenda ikustea dezute, Estatu mailako AHT ia proiektu guztietan parte hartu dutela ikustea dezute.

ITSASONDON EZETZ ESAN GENUEN

Itsasondoko herriak abenduaren 3an AHTari ezetz esan zion herri galdeketan. Honen aurrean Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak alde batetik herriaren erabakiari muzin eginez lanak aurrera atera nahi dituztela, eta bestetik, Itsasondoko Udalaren baimenik gabe Iraola baserrien inguruak Euroconsult eta ETSko makineriaz okupatu dituztela salatu nahi du.



"Queremos tener una comunicación directa con las personas para poder enriquecer el proceso de ejecución"

—Lopez de Guereñu—

JA, JA, JA...




www.ahtgelditu.org

Las consultas populares celebradas hasta la fecha no dejan lugar a dudas: cuando han tenido ocasión, los y las ciudadanas han dicho no al TAV.

Es por ello que AHT Gelditu! Elkarlana exige la paralización inmediata del TAV y la apertura de un debate social en profundidad en torno al mismo, así como al modelo de transporte, ordenación del territorio y sociedad que están imponiendo desde las instituciones.



Zuen kezkak, zuen berriak, zuen argazkiak... den dena hemen



Arantxa

Niri herriko gorabeherak jakitea gustatzen zait, hau da herriko txutxumutxuak jakitea, entretenigarri da eta gainera ia denak ezagutzen garenez ba jendearen berri jakitea interesgarri da. Ona ikusten dut aldizkari berria sortzeaz eta lehendik herrian egon zen aldizkaria gogoan dugu, nik irakurtzen nuen eta pena segitu ez zela. Erreportaiak gustokoak ditut ere, dena dakigula uste badugu ere seguro gauza berriak ikasiko ditugula herriari buruz.



Mª Victoria

Niri gauza simpleak gustatzen zaizkit, herriko gauzak, herriko berriak, herrian gertatzen diren gauzak gustatzen zaizkit, hala ere dendan ia denataz enteratzen gara. Ni igandero ez bada ia astero nijoa mezara, eliza asko gustatzen zait, horregatik horri buruz zeozer irakurri gogo nuke, elizaren historia...



Aloña

Aloñari oso ondo iruditzen zaio aldizkari berria egitea eta positivo ikusten du herri guztiarentzat komunikazioa beti dela ona edozein herrirentzat.

“Kezka bat dudanean beti jun izan naiz udaletxera informazio bila, beste bide bat sortzen bada gure kezkak bide-ratzeko erabiliko dut”

“kultur ekintzak izugarri gustatzen zaizkit eta aldizkari honek informazioa ematen badigu hilabeteen izango diren ekintzei buruz askoz hobeto”



Saioa

deia zoragarria da, herri txikia bada ere beharrezkoa ikusten dut honelako ekintzak bultzatzea”

“Nere seme jaio berriarekin paseatzea gustatzen zait, Legorreta aldera orain bide gorri berria jarri dutenez lasai ibiltzen naiz ni eta bidean elkartzen garen beste ama berriak”

“bainan jakin nahi nuke noiz jarriko duten horrelako bide gorriak ordizira juteko, zeren beldurra ematen dit bide bazterretik jutea”





AGENDA KULTURA HURRENGO HIRU HILABETEENTZAT

2008ko urtarrila

Urtarrilak 20 igandea, danborrad eta merienda (gazteak)
Urtarrilak 21, astelehena, damborrada (herri eskola).

2008ko otsaila

Otsailak 1, Iñauteri festa (H.e). Errezital musikal bat
Otsailak 3, Igandea, Santa Ageda
Otsailak 16, Txiki Park. (H.e)
Otsailak 24, Iñauteritako pailazoak (gazteak)

2008ko martxoa

Martxoak 8, Emakume eguneko hitzaldia (Gazteak)
Martxoak 16 igandea, Erramu Eguna (korua)
Martxoak 20, ostegun Santu elizkizuna (korua)
Martxoak 21, ostirala Santuko elizkizuna (Korua)
Martxoak, Heziketa Sormena ikastaroa. (sorginemak)

Etxea errentan:

Urriaren 29an egindako udal batzarrean, Udalak Nagusia 7. zenbakian 1. solairuan duen etxebizitza errentan emateko baldintza plegua onartu zuen.
Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 10etik urtarrilaren 3a bitartekoa izango da.
Baldintzak eskuragarri izango dira udal bulegoan, lan egunetan, goizeko 9etatik 13etara bitartean.
Informazio gehiago 943881170 telefonoan

Dinamizatzailea itsasondon

Itsasondoko Udalak maila ertaineko dinamizatzaile bat kontratatzeke erabakia hartu du. Dinamizatzaileak jor-nada erdiko lanaldia izango du eta kontratua urtebete eta bi urte arteko denboraldikoa izango da.
Postuaren oinarri zehatzak 2007/10/05 eko GAO-n <<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2007/10/05/e0710626.htm>> argitaratu dira.

"Itsasondo Aztergai Beka":

Itsasondoko Udalak, Itsasondo aztergai beka deialdia egin du, itsasondo aztergai harturik, arrobien ustiaketaren nondik norakoak eta horrek herriaren garapenerako izan duen garrantzia aztertzea izango da, ikuspegi historikoa, soziologikoa, pertsonala, e.a.



Hona hemen itsasondoko taberna berria, zuen zai dago, ateak ireki nahio ditu, baina oraindik umezurtz dago, aita baten bila dabil.

Zurumurruek diote norbait interesatua dagoela taberna ustiatzeko baina oraingoan itxoin beharko dugu igandeko bermuta herriko tabernan hartu ahal izateko.

Iragandako kultura ekitaldiak

Ederto afinatu genituen gure iztarriak kantu afa-rian, bapo-bapo afaldu eta gero gure iparraldeko lagunekin oraingo eta aspaldiko abestiak gogoratu genituen.



Gogora ekarri nahi dizuegu argazki honen bidez abenduan pasa genuen egun ikusgarria talo festaren inguruan, ederrak atera ziren eta bapo bapo jarri ginen talo ta xingarra jenez. Halaber jakinarazi 260 euroko dirulaguntza jaso zela hirugarren munden baldintza txarrean bizi diren lagunei bidaltzeko.

Txalo bero bat itsasondoko denei, ikastolako haurretik hasita talogiletik pasata eta taloa erosi zutenera.



ASMAKIZUNA:

Nola zula liteke globo bat bertatik airerik atera gabe eta zaratarik egin gabe?

GURE ASTE HONETAKO SUDOKUA:

		1						
		2		3				4
			5			6		7
5			1	4				
	7						2	
				7	8			9
8		7			9			
4				6		3		
						5		



Itsasondon zorionean gaude, gure sortze tasa gora doa, haurten bederatzi ume berri ditugu.

Hona hemen argazkitxo bat:

"kaixo nere izena Ekaitz da eta jada hiru hilabete ditu" zuek ere animatu eta bidali zuen semetxoaren argazki bat eta gustu haundiz argitaratuko dugu.

"GARIA BELARRAREKIN ETA UMEA
NEGARRAREKIN HAZTEN DIRA"

dio esaera zahar batek

EUSKO LABEL PRODUKTUAK: ERREZETAK

Eztiaz egindako magdalenak

Elikagaiak:

1. Nahasketa
400 g irin xehe
400 g almendra-hauts
2. Nahasketa
900 g zuringo
1 kg azukre distiratsu
3. Nahasketa
1 kg gurin
_ kg ezti milalore

Elaborazioa:

1. Lehenik eta behin, gurina urtu, eztia gehitu, eta geroko gordeko dugu. Jarraian, irina eta almendra-hautsa nahastu. Gero, su motelean eta eskuaz, zuringoak azukrearekin nahastuko ditugu, azukre-zatirik gera ez dadin. Urtu ondoren, sutatik atera.
2. Azkenik, zuringoen nahasketa hori irinarekin nahastu, eta azken hori gurina eta eztiarenarekin. Ongi nahastu homogeneoa geratu arte eta 2 cm bider 4 cm-ko silpat-moldeetan sartu.
3. 180° C-tan egosi 11 edo 12 minutuz.

LEHIAKETA:

Ale bakoitzean azkeneko atal hau aurkituko dezue eta nola ez lehiaketarik ezin zitekeen falta.

Lehenengo ale honetan argazki hau proposatzen dizuegu, ondo begiratu zeren gure diseinatzaileari okurritu zaio akats bat sartzea, zerbait aldatu, zerbait sartu, zeozer oker dago. Autoek ez dute balio noski, pista ez dijoa hortik.

Zuen erantzunak Itsasondo2.0@itsasondo.net helbidera bidali edota udaletxe pean jarritako buzoiean sartu.

Urte bukaeran lehiaketa guztiei ondo erantzun dutenen artean zozketa bat burutuko dugu eta bi pertsonentzako afari bat banatuko dugu.

ZORTE ON DENEI.



Garajea alokatuko nuke prezio onean itsasondoko goiko partean. gorka@itsasondo.net

Zeozer salgai edo erosi nahi badezute lasai asko bidali e-mail bat edota udaletxeko kutxa erabili horretarako, guk hemen jarriko dugu.